

Azaroak 12. Greba eguna Itunpeko ikastetxeetan

LABen diskurtsoa manifestatzailei.

Gaurko egunaren arrakasta ikusirik, harrokeriarik gabe, baina geure buruari zorionak eman beharrean gara.

Bai, zorionak aurrena egin dugunarengatik, baina, baita ere, lortuko dugunarengatik.

Gaurko egunak esanahi berezia du irakaskuntzarako. Izan ere, mobilizazio hauekin ozen eta tinko adierazi diogu Eusko Jaurlaritzari gure lan baldintzak hobetzeko ezinbestekoa dela 1993ko eskola ituna gainditzea.

Bakarren batek akaso zergatik galdetuko du? Zerikusirik ba duen 1993ko eskola ituna gainditzeak eta egungo lan baldintzak hobetzeak? Eta erantzungo diogu baietz, itun horrek ez zuelako ekarri irakaskuntzako langile guztion lan baldintzak berdintzea, eta gutxiagorik ere. Eta hori guretzako nahitaezko premisa da.

LAB Euskal Herriko irakaskuntza sistema propioa aldarrikatzeko eta eraikitzeke jaio zen. Eta une honetan mahai gainean dagoenak, bide horretan, urrats bat izan beharko luke. Euskal Irakaskuntzaren eraketan “lan berdinentzat lan baldintza berdina ” printzipioa oinarrizko elementua izan behar du. Izan ere, gure zeregina garatzeko orduan, zergatik eduki behar dugu trataera diferentea Hezkuntza Sailaren partetik itunpeko irakaskuntzako langileok? Ez al gaude behartuta zerbitzu publikoa berdina ematera? Ez al dugu zerbitzu publikoa ematen?

Hemen hiru sindikatu gaude bildurik: ELA, STEE-EILAS eta LAB. Sindikatu arteko batasuna lortu dugu lan baldintzak hobetuko dituen Finantzazio Akordio berria aldarrikatzeko.

Tamalez, batasun sindikala ez da osoa izan. Hain zuzen ere, CCOO sindikatua falta delako.

Harritzekoa da, baina duela bi urte Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxeetan greba konbokatu zenean ere, falta izan zen; argudiatuz greba itunpeko ikastetxeetan lehenago egin behar zela. Begira, eta orain ere falta dira! Noiz eta, itunpeko ikastetxeetan borrokan hasi garenean.

Bakoitzak jakingo du zer egin duen eta zer egiteko asmoa duen bere helburuen alde, panfletoak idazteaz aparte...

Itunpeko bi esparruetatik abiatu dugu mobilizazio hau, bai ikastoletatik eta bai ekimen sozialeko ikastetxeetatik. Eta eremu horietako bakoitzean sindikatuok dugun ordezkartzaren arabera heldu behar izan diogu geure erantzukizunari.

Argi dago, hemen gauden sindikatuok esparru bakoitzean dugun ardurak bultzatu gaituela holako ekimena sustatzera. Eta borrokan jarraituko dugu gure helburuak

lortu arte. Jaurlaritzak jakin behar duelako, saihestu ezin duen erronka bat duela aurrean. Hasteko Jaurlaritzak patronalekin duen jarrera berdina erakutsi beharko digu sindikatuei ere.

Ezin ditugu onartu Tontxu Camposek azken ostiralean egin zituen adierazpenak, *greba ez dela bidea, mahai baten bueltan bildu eta konpondu behar dela* esanez. Non dago mahai hori? Non egon da Tontxu mahaia bideratzeko?

Hori da hori azala Hezkuntza sailburuarena! aurpegia! Urte osoa ibili gara bere atzetik, berarekin hitz egitea lortu nahian! Bi idatzi formal eta elkarretaratze bat egin ditugu Lakua aurrean, bere bulegoko atea jo dugu, eta erantzunik gabe irten behar izan dugu. Lotsagarria iruditzen zaigu!

Baina ezin ditugu ahaztu, bestalde, itunpeko ikastetxeetako titularrek duten ardura bizi dugun egoera honetan. Jakin behar dute lan hitzarmenen negoziazio-mahaietan ezin dela akordiorik lortu sakonera jotzeko prest ez badaude. Konturatu behar dute ezin direla akordioak lortu langileen soldatetan, eskola lanaldiaren murrizketetan, ratioetan eta lan baldintzen beste alorretan, benetako edukiei heldu nahi ez bazaie.

Alegia, balizko finantzazio hori langile guztion lan baldintzak hobetzeko ez bada, aurrez aurre izango gaituzte. Partxeo eta unean uneko konponketen garaiak joan ziren, orain aldaketa sakonei ekiteko unean gaude eta hori da gure borroka.

Une hau larria da. Ezin dugu begira geratu eta gauzak berez aldatzeko zain egon. Neurriak lehenbailehen hartu behar dira. Gaur bihar baino hobe.

Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, honako mezu hau bideratu nahi dio LAB sindikatuak ozen eta garbi: eskatzen dugun irakaskuntza eredura hurbilduko gaituen urrats esanguratsua eman behar duela, luze baino lehen. Eta hori azkar egin behar du, Euskal Hezkuntzarako Legea egiteko zain egon gabe.

Gure lana ezin da berandutu egun gehiago, jendartearen aurrean arduraz erantzun behar dugu irakaskuntzako langileok egunero zerbitzu publiko duina eskainiz. Administrazioak ezartzen dizkigun zereginak eta baldintzak zorrotz betetzen ditugu. Bada garaia administrazioak ere erantzukizunez joka dezan arazo honen aurrean.

Amaitzeko, Jaurlaritzak eta patronalek jakin dezaten hona ekarri gaituen aldarria lau haizetara zabaltzen jarraituko dugula.

Esaten den bezala galtzen den borroka da abian jartzen ez dena eta guk borroka hau irabaziko dugu

Lan baldintzak hobetzeko finantzazio akordioa, orain !

LAB-Irakaskuntza

Euskal Herria. 2008-11-12